

II - ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Kobratzeko moduan jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zergaren zergadunen errolda. 2018ko ekitaldia

Egin da jarduera ekonomikoen gaineko zergaren zergadunen errolda. Jendaurrean dago 2018ko abuztuaren 8ko ALHAOn, 91. zk., argitaratu zenetik. Zergadunen erroldak jendaurrean jartzeak likidazioen jakinarazpen bateratua egitea du helburu, hala egin behar dela xedatzen baitu Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98. artikulua 3. paragrafoan.

2018ko abenduaren 27tik otsailaren 27ra arteko egun balioudunetan (biak barne) prest egongo dira, borondatezko epean ordaintzeko, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2018ko ordainagiriak.

I. Ordaintzeko epeak.

A) Borondatezko epea: 2018ko abenduaren 27tik 2019ko otsailaren 27ra.

B) Betearazte aldia: 2019ko otsailaren 28tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek, Arabako zergenak, adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenez, udalean eskatu ahal izango dute helbideratzea, edota diru sarrera egin Banco Popular edo Kutxabank finantza erakundeetan udalak dauzkan dirubilketa kontuetan.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Lapuebla de Labarca, 2018ko abenduaren 10a

Alkatea

MAIDER MURILLOTREVIÑO